

Aralarko Parke Naturala

Etorkizuna eztabaidan

Enirio-Aralar Mankomunitateak Aralarko Parke Naturalean egin asmo dituen pistek arrakala handia sortu dute. 2003. urtetik aurreikusten zen pistaz gain, beste hainbat bide berri eraikitzea dago jomugan orain. Abeltzainek lan duintasuna argudiatzen dute pista horiek eraikitzeko. Naturazale, ekologista eta beste hainbat taldek, ordea, zalantzan jartzen dituzte bide horien beharra, egokitasuna eta legezkoitasuna.



Igor Agirre
@igoragirre

Eztabaida piztu dute Aralar Natur Parkean egiten ari diren pistek eta etorkizunean egitea aurreikusi dutenek. Enirio-Aralar Mankomunitatea da bertako larreen jabea eta horren parte dira hamabost udal: Tolosaldeko Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain; eta Goierriko Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Ordizia eta Zaldibia. Lur horien kudeaketa, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago.

2016ko urtarrilaren 30ean, urteko batzar nagusia egin zuen Enirio-Aralar Mankomunitateak. *Goierriko Hitza*-k jaso zuenaren arabera, hiru urte bildu gabe egon ostean elkartu ziren bilera hartan herrietako, Foru Aldundiko eta ganaduzale nahiz artzainen ordezkariak. Batzorde horretan hainbat gai tratatu zituzten eta horien artean jarri zen mahai gainean artzainen bordetaraino iristeko pisten falta. Horren ondoren, hango lehen sektoreko partaideekin eta mendiarekin muga egiten duen udalerrietako ordezkariarekin, izaera kontsultiboa duen lantaldea sortzea ere erabaki zuten batzarrean.

Artzainen eta ganaduzaleen eskaera eta beharrak ikusita, Intzentsaotik Go-

roskintxuraino iritsiko den 1,5 kilometroko pista eraikitzeari ekin zioten makinek 2016ko udazkenean (ikus mapa). 2003. urtetik onartua zegoen pista hori egitea eta mankomunitateak erabakia aho batez hartuta. 138.000 euro bideratu dituzte lan horietarako.

Ordura arte mankomunitateko ordezkarien artean zegoen batasuna, ordea, 2016ko urriaren 19ko batzarrean hautsi zen. Lantalde deiturikoak landutako proposamena jorratu zen batzar horretan. Bertan, Goroskintxurainoko pista 4,4 kilometrora arte luzatzea onartu zen eta horretaz gain, beste bi mendi-bide eraikitzeko aukera ere bai. Proposamena bederatzi herriren aldeko botoekin, kontrako bost bozkarekin eta batzarreara azaldu ez zen herri baten abstentzioarekin onartu zen.

Pisten aferaren hurrengo kapitulu, Enirio-Aralar Mankomunitateak 2016ko abenduaren 20an egindako batzarrean gertatu zen. Bilera horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019 epealdirako proposatutako hitzarmenari baiezkota eman zitzaion aldeko hamar bozka eta abstentzio batekin; lau udalerrietako ordezkariak bileran ez parte hartzea erabaki zuten. Baiezkota horrekin

batera, Enirio eta Igaratza lotzen dituen oinezkoen bidea egokitzea onartu da, ibilgailuentzako pista eginez.

Denera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bozeramaile Imanol Lasak jakinarazitakoaren arabera, Diputazioak bi milioi euro bideratuko ditu Enirio-Aralarko kudeaketa planera. Hor aurreikusitako lanen artean daude aurretik aipatutako Goroskintxurainoko pista berria Saltarriraino luzatzea, Doniturrieta eta Enirio artean dagoen oinezkoen bidea zabaltzea, Igaratza eta Ariñate arteko pisten "V"-a osatzea eta hortik hainbat beso ateratzea. Aurrekontu horretan beste hainbat lan ere sartzen dira, hala nola, Ariñaten ur biltegia egitea, Enirio-ko langan paso kanadarra egitea, aska berriak eraikitzea, hainbat garbiketa lan, eta iturrietan nahiz txaboletan egin beharreko konponketak.

Pisten auziak ika-mika handia sortu du aldeko eta kontrakoan artean. Hondeamakinaren aurka udazkenean egin sabotajeak eta berriketan Zaldibiko mendizaleek Oiduin zuten txabola erre izanak –proiektuaren kontra azaldu dira elkarte horretako kideak–, ez du mesederik egin giroa baretzeko. Zein dira batzuen eta besteen argudioak?

Udazkenean hasi ziren
makinak Intzentsaotik
Goroskintxura doan pista
irekitzen. ARALAR BIZIRIK



GOIERRIKO HITZA



Ezker eskuin: Aralarko ganaduzaleek euren lana "denon ondarea" dela aldarrikatu zuten Zaldibian; orain Goroskintxuraino iristen den mendi bideak utzitako arrastoak;

2002an ez, orain zergatik bai?

Abeltzainen eskaerari kasu eginez onartu dira orain arteko pisten lanak eta asmoak mankomunitatean. Gipuzkoako EHNE sindikatuaren lehendakari Garikoitz Nazabalek azaldu duenez, "gutxienez hogeitaz urte eskatzen ari diren behar bat" da bideena. Halaxe dio ere aipatu lantalde horretako partaide den Josu Oizartzabal artzainak: "Hogeitaz urte daramatzat Aralarren artzain eta hasi berritan harrapatu ninduen 2002ko kontuak. Orduan ere pistak egitea eskatzen genuen baina garai hartan, mankomunitateak ezezkoa eman zuen. Ez genuela ezer egiterik esan ziguten".

Aranzadiko Zuzendari Nagusi Juantxo Agirrek gogoan du Aralarren inguruan 2002an egon zen eztabaida. Ia hamabost kilometroko autoentzako bide-sarea zegoen proiektatuta orduan. Garai hartan "argi gorriak piztu ziren" Agirrek azaltzen duenez, "Diputazioak bultzatzen zuen hori; gaitasun ekonomiko zuen eta juridikoki bideratzeko aukera ere bai". Ordezkaritza politikoko Eusko Legebiltzarrean beren ikuspegia azaltzeko aukera eman zieten orduan Aranzadikoiei. "Artzaintza eta abeltzaintza positiboki baloratzen genuela esan genuen orduan, lagundu behar zela, bizi eta lan baldintzak hobetu behar zirela; baina parkearen bihotzean autoentzako mendi-bide horiek ezinezkoak zirela adierazi genuen, eragin latza eta atzerazina izango zutelako" gogorarazten du.

Orduko ordezkaritza politikoko proiektu erraldoi hura ez egitea erabaki zuten azkenean. Hala ere, gaur egungo egitasmoak 2002koarekin lotzen ditu Aranzadiko ordezkaritza: "Garai hartan aurreikusitako ibilbide guztiak ikusten ziren plano bat zegoen. Argazki horren aurrean jende asko beldurtu egin zen. Hamasei urte geroago, orain, argazki hori zatika erakus-

ten dute, eta garaiko bide-sarea egin nahi zutenek egitasmoa administratiboki eta juridikoki nola bideratu ikasi dute".

Denbora pasa bada ere, abeltzainek orduko kezka berdinekin jarraitu dutela dio Oizartzabalek. Latosan du txabola eta bere esperientzian oinarrituz azaltzen du berak bizitako egoera: "Nik hiru urtean egin dut gazta mendian baina ia ezinean jaisten nintzen. Pista amaieratik ordubetera dut txabola eta gaztak egin berriak direnez, gazta gutxi eman behar nituen joan-etorri bakoitzean, bestela zapaldu egiten baitziren. Horretaz gain, eguneroko bizitza egiteko beharrezko traste guztiak ere eramane behar nituen txabolaraino. Azkenean, gazta mendian egiteari utzi nion".

Gaur egungo egitasmoa etorkizunean pentsatuz egindako eskaera dela azpimarratu du Oizartzabalek: "Eskaera egin

» **GARIKOITZ NAZABAL (EHNE):**
"Gure sektoreak lurrarekin lan egiten du. Guk lurra behar dugun bezalaxe behar gaitu lurra gu orain duen egoera mantentzeko"

» **EDURNE HUESA (LANDARLAN):**
"Aralar ondarezko herri-mendia da eta bertako onuradun diren sektore guztien beharrak jaso behar lituzke proiektuak"

dugu etorkizunean abeltzaintzak, eta batez ere artzaintzak mendi horretan jarraitzea nahi badugu, baliabide horiek behar-beharrezkotzat ditugulako. Jardun horiek mantentzen badira, Aralar larreetako belar motzarekin eta txukun mantentzea ekarriko du, gaur egun bezala".

Horretaz gain, langileen baldintzak ere ezinbestean kontuan hartu behar direla arrazoitzen dute EHNE eta ENBA sindikatuek. EHNEko ordezkaritza esanetan oinarritzeko dira beren eskakizunak: "Gure sektoreak lurrarekin lan egiten du. Guk lurra behar dugun bezalaxe behar gaitu lurra gu orain duen egoera mantentzeko. Beraz, errekonozimendu horretatik hasiz gero, pertsonak era duinago batean lanean aritu behar duten garaian, oinarritzeko dira birtarteko batzuk behar dira". Langileen eskubideez mintzo direla aldarrikatzen du, bideez hitz egitea "langileen bizitza" hitz egitea dela argudiatuz. "Langile guztien moduan, duintasuna eskatzen dugu" gehitu du Nazabalek.

Aralar Bizirik taldeko Joxan Auzmendik argi du Aralar Parke Naturalaren kudeaketaren helburua "bertako natur-ondarea babestea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea" dela. Artzaintza ere parametro horietan kokatzen du. Baina aipatutako helburuei erreferentzia eginez, Aralarko Natur Baliabideen Antolamendu Planean oinarritzen da. "Hor jasotzen da Aralarren garatuko diren jarduerak guzti-guztiak helburu horrekin bateragarriak izan behar dutela" dio.

Prozesua eta legeen interpretazioak

Pista berriak egitea egia bihurtu litekeela ikustean, proiektuaren beharra, egokitasuna eta legezkotasunaren inguruko iritziak ere zabaldu dira gizartean. Aralar "ondarezko herri-mendia" denez, tamai-

ARGIA

ZALDIBIA.ORG

EGUZKI



Oiduin suak kiskalitako mendizaleen txabola estaltzeko auzolanean iritzi ezberdinetako herritarrek izan ziren; Aralar Bizirik plataformaaren bilkura Larraitzen.

na honetako proiektu bat egiterakoan, “bertako onuradun diren sektore guztien beharrak” jaso behar direla uste du Landarlaneko kide Edurne Huesak. Duela hamahiru urte Goierrin sortutako taldea da Landarlan Ingurumen Elkarte eta Aralar parkeko patronatuko kide ere bada. Patronatua parkearen kontrol, kontsulta eta lankidetzako organoa da eta eztabaidaren aurrean patronatua ez biltzea salatzen du taldeak: “Landarlanez gain, EHU, Mendizale Federazioa eta beste zenbait erakunde ere patronatuan ordezkatuta daude”.

Eguzki talde ekologistarekin batera, fiskaltzara jo du Landarlanek pisten proiektuak hainbat lege urratzen dituela argudiatuta. Joxan Auzmendiren arabera, “legearen espirituaren gainetik nolabaiteko ingeniaritza juridikoa erabili dute beren helburua lortzeko zirrikituak aurkitu nahian”. Pista berria egiten ari diren tokian legeak espresuki lurra mugitzea debeka-

tuta dagoela dio Aralar Bizirikeko kideak. Goroskintxurainoko pista Aralarko Parke Naturalaren ordenazio planean babese-rako “mendi babesle barrutian” kokatuta-ko lurretatik pasatzen da. Barruti horren legedia kontuan hartuz, Auzmendik adibidetzat jartzen du Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Planeko 26. artikuluan jasotzen den araua: “Lurzorua eraldatu dezaketean lan guztiak debekatzeko dira baso iraunkorra ezartzea helburu duten lanak eta sarbide eta azpiegiturak hobetzeko edo sortzeko lanak salbu”.

Aralar Bizirikeko kidearen aburuz, “proiektu hori bide berria eraikitzeko denez, ezin zaio aplikatu arauan jasotako salbuespena”. Pista berriak egiteko, ordea, baliatuko duten zirrikituaren inguruko susmoa ere badu Auzmendik: “Denboran zehar hainbat ibilgailu pistetatik kanpo ibili dira. Hori debekatuta dago baina di-ruzienez, toleratuta. Orduan, proiektua

justifikatzeko, dagoeneko gurpilekin lu- rrean arrastoak eginda daudenez eta hor higadura sortzen ari denez, pista berriak egiteari Aralarko txaboletara eta Saltarri-ko mangarako mendi-bideen ‘antolakun- tza eta egokitzapena’ deitu diote”. Jaurla- ritzaren menpeko den HAZI fundazioak egindako ingurumen txostenean oinarrit- zen dira horretarako.

Legeek, aldiz, beste modu bateko inter- pretazioak egiteko parada ere uzten dute. Esaterako, HAZIren txostenak, abere-jar- duerari erreferentzia eginez, bideak egi- teko hartutako erabakiarekin bat egiten du. Aralar Kontserbazio Bereziko Ere- mu izendatzeko dokumentuak jasotzen duenez “larre eta abere-azpiegiturak ho- betzeko beharrezko inbertsioak” egin ahal izango dira, gaur egungo ganadua “gutxienez mantentzeko”; eta espazio horien kontserbazioa “bermatuko” duten abere-jardueraren mesedetan beharrez-

INFOGRAFIA: ARGIA

ARALAR EREMU BABESTUAK ETA PISTAK

- Erreserba
- Babesa
- Mendi babeslea
- Abelazkuntza
- Basogintza
- Lehendik zeuden pistak
- Pista egin berriak
- Aurreikusiak 2017-2019 epean (gutxi gorabeherako ibilbidea)



ko azpiegiturak “sortu, zaindu eta konponduko” direla ere badio.

EHNE nahiz ENBA sindikatuek abeltzainekin elkarlanean jasotako beharretako batzuen artean kokatzen ditu pistak Nazabalek, eta gaineratzen du teknikarrien lana dela horiek nondik egin daitezkeen finkatzea: “Guk mahai gainean jarri ditugunak behar batzuen identifikazioak dira. Bideak dira horietako bat. Nondik egin behar diren ez dugu esaten. Hori ondoren tramitatzen denak esaten du”.

Alternatibarik ba al da?

2002ko egoerara bueltatuz, alternatibarik bilatu gabe hamalau urte “galdu” direla uste du Landarlan elkarteak Koro Irazustabarrenak. Ikuspegi bertsua du lehen sektoreko ordezkarik Garikoitz Nazabalek ere: “Duela hamabost urte, eztabaida plano hauetara etorri zenean, alternatibez hitz egiten ziguten. Hamabost urte geroago, gabeziek hor jarraitu dute baina alternatibarik ez da landu, edo ez da planteatu, behinik behin”. Hamalau urte hauetan, parke naturala pistek eragingo zuten “inpaktutik” salbatu dela iritzi du Aranzadiko Juantxo Agirrek. Aldi berean, urte horietan zehar, beste irtenbide batzuk landu behar ziren haren ustean. “Ardura guztiona da, baina esfortzua beharra duenari ere eskatu behar zaito” ohartarazi du ondorean adituak.

Puntu honetara iritsita, “zail” ikusten du Josu Oiartzabalek pistak ez diren beste aukera batek beren beharrek eta eskariak betetzea. Hala ere, pistak egitearen gaiarekin “itxirik” ez daudela dio sindikatuko Nazabalek: “Eztabaida ulertzen dugu eta horretarako hitz egiteko prest gaude, lanean ari diren pertsona horien duintasuna errespetatuz gero. Alternatiba errealek baldin badaude, planteatu eta hitz egingo dugu

» **JUANTXO AGIRRE (ARANZADI):**
 “2002ko maparekin jende asko beldurtu zen. Hamasei urte geroago, bide-sarea egin nahi zutenek egitasmoa administratiboki eta juridikoki nola bideratu ikasi dute”

horien inguruan”. Landarlan elkarteak, esaterako, hainbat irtenbide aipatu ditu pistak eraiki ez daitezkeen eta artzainek dituzten eskakizunak betetze aldera. Besteak beste, txabolen berrantolaketa, noranahiko beldar katezko garraioa edo airetiko garraioa.

Nazabalek zalantzan jartzen du airetiko garraioa eta batez ere, helikoptero zerbitzuaren bideragarritasuna artzainekin egunerokotasunari begira: “Erreala da hori? Orain arte materialak eman izan dira helikopteroetan txabolak konpontzeko, eta sekulako gainkostua dute. Eguneroko martxan, gaztak jaisteko, butanoa igotzeko... helikopteroa joango da? Mendizale bati zerbaite gertatzen zaionean hamarretik bederatzitan helikopteroa ez da joaten lainoarengatik” dio EHNEko ordezkariek. Nazabalen adibidearen kontrara, Agirre Mauleonek ez du berehalakoan esaten helikopteroaren aukera ez dela erreala: “Hori horrela balitz, Pirinioetako Ordesan, Suitzako parke guztietan edo Amazonian bide sareak sartu beharko genituzke barruraino. Eta gainera, pistak asfaltatzen baditugu, anbulantziak azkarrago joango dira”, azaldu du ironikoki.

Etorkizuneko salbazioa?

Mendi-bide berriak ez dira euren sektorearen salbazioa izango, hala dio Nazabalek, baina egoera hobetzeko bidean garrantzitsuak direla uste du: “Bideak erreminta bat dira, ez helburua. Azken batean, guk medio batzuk eskatzen ditugu lana egoera hobean egiteko. Sektorearen etorkizuna soluzionatuko dute? Ez. Osagarriak diren gauza mordoak batek lagundu dezake soluzioaren parte izaten? Bai”.

Ezbaian dagoen egoeren antzekoak munduko beste hainbat tokitan ere gertatzen ari direla uste du Agirre Mauleonek. AEBetako gobernu berriarekin batera sortutako egitasmoa jartzen du adibide-tzat: “Planeta osoan gertatzen ari da Aralarako aferaren antzekoak. Estatu Batuetan maite dituzte natur parkeak. Baina ingurumen ministro berriak oliobideak sartuko ditu. Berak ere maite ditu parkeak, baina petrolio-hodiak sartuko ditu milaka lanpostu berri bultzatzeko. Hemen bezala, bertako unibertsitate eta ekosistema adituek mahai gainean jarri dute bailara batzuetatik ezin daitezkeela oliobide horiek pasa. Baina gobernuak, hura ere demokratikoa, ez die kasurik egingo. Beraz, bizitza, natura eta geroa ulertzeko modu desberdinak dituzte. Guk, neurri txikiagoan, baina arazo bera daukagu”.

Aranzadin garbi ikusten dute pistak eraikitzeak “ingurumenarentzat kalte handiak eta arazo gehiago” sortuko dituela. Egoeraren inguruan beharrezko erabaki eta neurriak hartu aurretik, artzain eta ganaduzale horien etorkizuna “eragile guztien artean aztertze beharra” ezinbestekoa da zientzia elkartearantz. Batzuek denbora eskatzen duten bitartean, Enirio-Aralarko kudeaketa planak dagoeneko jasotzen ditu mendi-bide berriak egiteko aukerak. ■

www.bertsozale.eus



TAFALLA
 Centro Cultural Tafalla
 Kulturgunea
 Otsailak 18, 17:30

AURITZ
 Kultur Etxea
 Otsailak 19, 17:30

FINAL-LAURDENAK

 JULIO SOTO	 KOTTE PLAZA	 IRIGO OLAETXEA	 IBAN GARRO	 MIKEL LASARTE	 SAHATS ALEMAN
 XABIER TERREROS	 SAIOLA ALKAIZA	 ALAZNE UNTXALO	 PAXI CASTILLO	 IOAR TAINTA	 IOANA ZIZANDA


